


Hamaseigarrenean, aidanez

Nobela lantzeko proposamen didaktikoa

Egileak: Iratxe Retolaza eta Amaia Serrano

EIBZ, 2018

Liburuaren fitxa



Izenburua: Hamaseigarrenean aidanez

Idazlea: Anjel Lertxundi

Argitaletxea: Erein

Argitalpen data: 1983

Orrialde kopurua: 144

Laburpena

Ez nuen leihorik ireki behar izan gertatuko zitzaidana ezagutzeko, horixe da eleberriaren lehen perpausa. Martzelinaren bihozkada hori nagusitzen da hasiera-hasieratik; eta nobela zehazki ez dakigun gertakariaren inguruko informazioa antolatzen igaroko da. Baserri giroko tragedia bat da eleberri hau. Indarrean eta afanean oinarritzen den kontakizuna: apostulari baten heriotza du gertaera nagusi. Pertsonaia desberdinen eta ikuspuntu desberdinetan oinarrituz, emakume baten bakardade eta sofrimenduaren ikuspegi sakona eskaini du idazleak. Ikuspuntuaren erabilera erabakigarria gertatzen da. Bernardo Atxagaren Bi Anairekin batera hauxe da 80eko euskal nobelarik lortuena.

Zergatik irakurri liburua

Hamaseigarrenean aidanez (Erein, 1983) nobelak nekazal giroko herri txiki bateko apusturako eta lehiarako ohiturak irudikatzen ditu. Apustuzaletasunaz gain, izan badira beste hainbat gai nobela osoa zeharkatzen dutenak: herri txikietan bertako ez izateak dakartzan susmoak, emakumeen kontrako indarkeria, komunitate txiki eta tradizioaletan sorturiko ohitura itogarriak, eta abar. Gainera, gertakari eta apustu historiko bat du abiapuntu: Urtain boxeolariaren aitaren azken apustua du oinarri, Itziar herrian gertaturikoa. Formari dagokionez, perspektibismoa du oinarri nobelak, hainbat ahots tartekatzen ditu nobelan zehar, eta ondorioz, narrazio-molde berriez jabetzeko aukera ona da.

Testuinguru horretan, nobela honen bitartez hainbat alderdi landu daitezke:

- 1) Errealitate eta fikzioaren arteko harremana: gertakari historikoaren eta fikziozko narrazioaren arteko harremanez gogoeta egiteko aukera ematen digu nobelak.
- 2) Euskal kultura eta apustuzaletasuna: euskal kulturako hainbat jardunek lotura dute norgehiagokarekin (herri-kirolak, bertsolaritza...), eta nobelako gertaerek norgehiagokaren kulturaz aritzeko aukera ematen digu (bide batez, maskulinitatearen kulturarekin lotura estua duena).
- 3) Neorruralismoa: Europako nobelaren korrante horretan koka daiteke nobela, eta nekazal munduaren idealizaziotik urrun (ohiturazko nobelaren ikur zena), nekazal munduko biolentziak eta kontrol-sistemak agerrarazten ditu korrante literario honek.

Atariko jarduerak

1. Jarduera. Apustuzaleatasuna

Helburuak. Ikasleen jarreran eta aurrezagutzan eragitea:

- *Jarrera*: ikasleengan motibazioa eta interesa piztea.
- *Ezagutza soziokulturala*: literatur lana ulertzeko baliagarri izan daitekeen informazioaz jabetzea: apustuzaleatasunaren inguruko informazioa eta Urtain boxeolariaren eta bere aitaren inguruko informazioa.

1.1. Apustuzaleatasuna eta euskal kultura. Apustuzaleatasuna dago euskal kulturako adierazpide batzuen oinarrian. Apustu batzuk indar fisikoan edo ekite fisikoan oinarritzen dira; beste apustu batzuek, aldiz, soil-soilik lehia dute oinarri. Harri-jasotzaileen jardunak, adibidez, apustua du oinarri, eta indar fisikoa du lehiaren muin. Horrez gain, apustu gehienek landa-eremuarekin edota itsasoarekin dute zerikusia: aizkora apustuak, idi-demak edota arraunak, kasu. Taberna ere izan da lehia-mota ezberdinen tenplu: bertsolaritzatik hasita mus txapelketetaraino. Azken norgehiagoka horiek, ordea, maila intelektualean dute funtsa (bertso txapelketa nagusiek erakutsi gisan). Hori guztia jakinik, egin gogoeta galdera hauen inguruan:

- Euskal kulturako zer adierazpidek dute apustua oinarri?
- Zer lehia oinarritzen da indar fisikoan edo ekite fisikoan?
- Zer lehia oinarritzen da bestelako ekite batean? Nolako da ekite hori?
- Apustuzaleak al zarete? Izatekotan, nolako apustuak egin ohi dituzue?

1.2. Literatura eta memoria kolektiboa. [Anjel Lertxundiren Hamaseigarrenean aidanez](#) (1983) nobelak gertakari erreal bat du oinarri: Urtain boxeolariaren (Zestoa, 1943 - Madril, 1992) aitaren azken apustua. Nobelara hurbildu aurretik, Urtain boxeolariaren eta haren aitaren inguruko informazioa bilduko dugu (sarean begiratuta, edota etxekoei zein ingurukoei galdetuta).

Irakasleentzako baliabideak:

[Urtain](#) (Euskadi Irratia, *Amaraura* saioa, 2016-08-15, 3:46'-6:30')

[Jose Manuel Ibar, Urtain](#) (Ikasbil, 2013-08-18)

[Urtain antzezlana](#) (Animalario, 2010)

[Urtaini buruzko dokumentala](#) (Kronos ekoiztetxea)

1.3. Diziplinartekotasuna: musika, literatura eta memoria kolektiboa. Gertaera batek gizarte batean eragina izan duenean talde edo komunitate baten oroitzapenean geratzen dela esaten da. Euskal musikaren historian bi aurpegi ezagun dira Zarama taldea eta Jabier Muguruza bakarlarria. Oso estilo ezberdinak jorratu dituzte, baina biek eskaini diete abestiren bat Urtain boxeolariari:

- [Zarama](#) taldearen [Urtain](#) abestia *Binilo bala* (1994) diskoan aurki daiteke. Bertan Urtainez hitz egiten dute, baina nola gogoratzen dutela esango zenuke? Zein da hari buruz aritzeko erabiltzen duten tonua, melodia?
- [Jabier Muguruzak](#) *Kitarra bat nintzen* (1996) diskoan Urtaini egindako abestiaren letra dugu

honakoa. Irakurri bertan dioena:

Urtain

*Ukabilak harrotu dira
gauaren baitan, gogor
ukabilak askatu dira
ilunaren aurka, zurtz¹*

*Aizkorak harrotu dira
etxeko atarian*

*altzairuaren diztira
ernea zaik begietara*

***Ez duzu itzultzerik
behin utzitako etxera,***

*ez dago biderik
araua hautsi delarik*

*Eta bizkar emanda
atzera egin behar*

*jaio zinen arana
betirako utzita*

***Eremu idorreen²
ortzean³ zehar hodeiak***

*bertan arrotza haizena
ekartzen gogora*

***Bertan ez duk gero
euriren hots xamurrik
aspaldiko lagun-arteko
gizon haien jatortasunik***

*Ukabilka, ukabilka
gauaren baitan*

*ukabilka, ukabilka
ilunaren aurka.*

¹ zurtz=umezurtz ² idor=lehor
³ ortzean=zeruan

- Zein da Urtainek atzean utzi duen etxe hori? Nongoa zen Urtain eta zergatik joan zen herritik?
- Zein da eremu idorra? Zein zentzutan da lehorra leku hori?

1.4. Nobelaren aurkezpena. *Sautrela* saioan Beñat Sarasolak egindako [iruzkin laburra](#) ikusiko dugu. Iruzkina entzun ondoren, laburtu nobelaren argumentua hiruzpalau lerrotan.

Irakasleentzako baliabideak:

[Anjel Lertxundi](#) (*Euskal Literaturaren Hiztegia: Idazleak, EHU*)

[Hamaseigarreanean aidanez](#) (*Euskal Literaturaren Hiztegia: Idazlanak, EHU*)

[Hamaseigarreanean aidanez](#) (*Sautrela saioa, EITB*)

2. Jarduera. Nobelaren ertzak

Helburuak. Ikasleen aurrezagutzan eragitea:

- *Ezagutza soziokulturala* ikasleengan gatazka sozialen inguruko interesa piztea
- *Ezagutza literarioa*: : izenburuek, azalek eta aipuek nobela baten gaia, tonua edota giroa iradokitze duen funtzioaz jabetzea (paratestuak).

Hamaseigarrenean aidanez (1983) nobelak, beste literatur lan askok bezala, baditu literatur lanaren giroa zein gaia iradokitze duen funtzio osagai zenbait: izenburua, azala eta aipuak. Nobelaren pasarteak irakurri aurretik, osagai horien inguruko gogoeta egingo dugu.

2.1. Izenburuak. Izenburuek giro bat transmititzen dute, istorioarekin oso bat datorrena. Hona hemen *Hamaseigarrenean aidanez* (1983) nobelako kapituluaren izenburuak:

lehen partea

BAT: apirileko goiz euritsuan

BI: ganbaratik sukaldera

HIRU: trikitixa bati esker

bigarren partea

BAT: jokoa ez omen da errenta

BI: Santiotan

HIRU: aierua beti zain

hirugarren partea

BAT: azken hariari tiraka

BI: ustekabearen gertatu da

HIRU: diafragma lehertu baten

- Zer mundu eta giro iradokitzen du nobelaren izenburuak?
- Zer mundu eta giro iradokitzen dute kapituluaren izenburuak?

2.2. Egitura. Eleberri honen egiturak asko markatzen du narrazioaren erritmoa, baita edukia iradokitzen ere. Hiru ataletan banatuta egoteaz gain, bakoitza beste hiru azpi-ataletan sailkatzen da. Hirutan banatze horrek zerikusia du eleberrian aurki dezakegunarekin. Hiru zenbakia perfekzioaren sinbolo gisa ulertu izan da, erlijio katolikoan hirutasun santuak ere batasuna eta oreka irudikatzen ditu. Armonia hori eleberrian islatzen den jakiteko, irakurri liburuaren kontra-azaleko deskribapen hau eta erantzun galdera hauei:

“Ez nuen leihorik ireki behar izan gertatuko zitzaidana ezagutzeko”, horixe da eleberriaren lehen perpausa. Martzelinaren bihozkada hori nagusitzen da hasiera-hasieratik; eta nobela zehazki ez dakigun gertakariaren inguruko informazioa antolatzen igaroko da. Baserri giroko tragedia bat da eleberri hau. Indarrean eta afanean oinarritzen den kontakizuna: apustulari baten heriotza du gertakari nagusi. Pertsonaia desberdinetan eta ikuspuntu desberdinetan oinarrituz, emakume baten bakardade eta sufrimenduaren ikuspegi sakona eskaini du idazleak (...)

- Laburpen horren arabera, Martzelinaren bizimodua orekatua eta perfektua izan zela pentsa liteke?
- Zergatik iruditzen zaizu banatu duela idazleak eleberria hiru zatitan, zenbaki hori ezaugarri positiboekin eta erlijiosoekin lotua badago?

2.3. Azalak. Liburu baten azala nobelaren giroan zein gaien sartzeko ataria da, eta irakurketa bideratzen laguntzen du. *Hamaseigarrenean aidanez* (1983) nobelak bi azal izan ditu, eta Antton Olariagak *Hamaseigarren aidanez* (1983) nobela komiki bihurtu zuenean, 1985. urtean, azal berezi bat egin zion komikiari.



- Zer mundu eta giro iradokitzen dizu nobelaren lehen azalak?
- Zer mundu eta giro iradokitzen dizu nobelaren bigarren azalak?
- Zer mundu eta giro iradokitzen dizu komikiaren azalak?

2.4. Aipuak. Anjel Lertxundik Cesare Pavese idazle italiarraren aipuak erabiltzen ditu atal bakoitzaren hasieran. Aipuek atalen muina azaleratzeaz gain, eleberria bere osotasunean ulertzeko gakoak ematen dituzte.

- Zure ustez, zer gai iragartzen du lehen ataleko aipu honek?

Arazoa: zer da emakumea? indartsuaren saria da ala ahularen babes, gizonezkoen gogoaren arabera?

- Zure ustez, zer gai iragartzen du bigarren ataleko aipu honek?

Sufritzen denean, ingurutik at zoriona badela uste izaten da.

— Zure ustez, zer gai iragartzen du hirugarren ataleko aipu honek?

*Eta, hala ere, ezin dut inoiz heriotzan
pentsatu ideia honen aurrean dardarka
jarri gabe: heriotza helduko da ezinbes-
tean, ohiko arrazoiengatik, bizitza
osoan zehar prestatuta, huts egin gabe,
hain da egia helduko dena. Euria eror-
tzea bezain gertakizun naturala izango da.
Eta honetan ez dut etsitzen: zer-
gatik ez da borondatzeko heriotza, aukera
libreko baieztapena den herio-
tza, zerbait adierazten duen heriotza
bilatzen? Norberaren burua hiltzen utzi
gabe? Zergatik?*

2.5. Narrazioaren metaforak. Nobelako gertaerei erreferentzia egiteko, nobelako idazle-kazetariak honako adierazpen hau egiten du: “Bidetik antzeman ere egiten ez zen erreka batera iritsi nintzen. Ertzeko belarretan eseri eta harri koskor bat bota nuen ur geldu, nagira. Zipriztin gesal baina alaiari handitzen, handitzen, handitzen joan zitzaion harri koskorrak sortutako zirkulu etengabea” (61. orrialdea).

— Zer iradokitzen dizu irudi horrek?

— Zer sinbolizatzen du “ur geldu, nagi” horrek? Zer sinbolizatzen du “harrikada” horrek?

Irakurketa ibilbidea

1. Pasartea. Martzelinaren patua

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza literarioa (1): narratzailearen eta pertsonaien ahotsak bereizten trebatzea.
- Ezagutza literarioa (2): pertsonaien emozioen eta nortasunen gorpuztea.
- Ezagutza soziokulturala (3): gizartearen errepresentazioa eta genero-ikuspegia.

EZ NUEN LEIHORIK IREKI behar izan gertatuko zitzaidana ezagutzeko. Etxeko atearen danbatekoak esnatu ninduenean jakin nuen jazoko zitzaidana. Begiak ireki eta gelako aulki bakarra senarraren arroparik gabe ikusi nuen unetik. Kolpe batean irentsitako etsipena. Hala ere xehetasunak ez nituen zehatz ezagutu leihorantz joan, pertsiaren giblean aire bizi eta eraginkorra usaindu apirileko goiz ilun, euritsuan eta haize boladak leihoaren oinarriak astindu zituen arte.

- Martzelina, ustekabean gertatu da!

Edo:

- Ez dugu ezer egiterik izan.

Hala esango zidaten atea irekitzen nienean. Eta hainbeste urtetan beldurra izan nion espantu harrapagaitza sartuko zitzaidan etxera. Esango zizkidatenak eta isilduko zitzaizkidanak hausnartu nituen, haurtzaroko oroitzapen maiteenen gardentasun berdinez ikusi eta usaindu bainuen zortzi bat ordu barru etxeratu behar zitzaidana. (...)

LEIHOA IREKI NUENEAN Martzelinaren etxerantz begiratu nuen ia goizero bezala eta haren senarra ikusi etxetik irten eta euripean sartzen.

-Gaur ere bai! -Martzelinaren senarra euripean sartu zenean, Martzelinaz errukitu nintzen eta senarra esnatu nuen ustekabean.

-Zer da?

-Apusturen bat al da gaur ere?

-Zertaz ari zara? Ze apustu? Ezin al dugu lasai lo egin? Honezkero ezta igandetan ere...

-Martzelinaren senarra ikusi dut etxetik irteten.

-Ah! Hori al zen guztia? A ze gauzak dituzun, Maria. Ze ordutako mezetara zoaz?

-Apusturik ba al da? Bai ala ez?

-A ze galdera! Ia igandero bezala -erantzun zidan Jose, nire senarrak eta mesila gaineko argiz biztu zuen ohe gainean utzia nion egunkariari pasadatxo bat emateko.

Burutik pasa zitzaidan Martzelinarengana joatea bederatzitako mezaren aitzakiaz baina beldur nion haren begirada isil bezain galdegileari. Zer demontre esan behar nion? Banuela apustuaren berririk eta igandea elkarrekin pasako genuela? Eta zertarako? Inoiz eskaini nintzaionean, Martzelinak garbi asko erantzun zidan:

-Eskerrik asko, Maria, baina ez. Nahiago dut inolako lekukorik gabe egin negar.

Anjel Lertxundi, *Hamaseigarrenean aidanez*, Erein, 1983, 11-12. orrialdeak; 17-18. orrialdeak.

1.1. Narrazioaren ahotsak. Irakurri Hamaseigarrenean, aidanez (1983) nobelaren lehen ataleko bi pasarte hauek, eta erantzun galdera hauei:

- Pasarte bakoitza narratzaile baten ahotan dago kontaturik. Zer pertsonaia da lehen pasarteko narratzailea? Zer pertsonaia da bigarren pasarteko narratzailea?

- Narratzailearen ahotsaz gain, badira pasarte hauetan beste pertsonaia batzuen ahotsak. Azpimarratu pertsonaia horien ahotsak, kolorez bereizi pertsonaia bakoitza.
- Pertsonaien ahots horiek narratzailearen kontakizunaren barruan txertatzean, zer estilo-mota erabili da? (estilo zuzena, elkarrizketa, zehar estiloa, bakarrizketa).

PERTSONAIEN AHOTSAK

Pertsonaien ahotsak modu hauetara txerta daiteke narrazioan:

Estilo zuzena: norbaiten hitzak eta ideiak zuzenki adierazten ditu solas edo estilo mota horrek; hala, (ahozko) bakarrizketa edo elkarrizketa bidez, ahozkotasuna imitatuz, testua biziago irudiarazteko erabiltzen da.

Elkarrizketa: *estilo zuzenaren* aldaera mota bat da, bi pertsonaien arteko solasaldia bere horretan kontatzen denean, alegia, ahozko moldeari jarraituz.

Zehar estiloa: pertsonaien hitzak kontalariak ematen ditu aditzera; menpeko esaldien bidez ematen ditu eta hirugarren pertsona da adierazpidea.

Bakarrizketa: testu bateko pertsonaia batek, solaskideen erantzunik espero gabe, bere pentsamendu, gogoeta eta sentimenduak kanporatzen dituenean bakarrizketan diharduela esaten da. Pertsona bakar batek bere buruarekiko eginiko solasa da, beraz.

PERSPEKTIBISMOA. Gertaera bera kontatzeko perspektiba, ikuspuntu edo fokalizazio mota anitz erabiltzeari deritzo. Hala, errealitate baten aurrean egon litezkeen ikuspegi berri ematen da. Perspektibismorako joera izan da eleberrri modernoaren garapenean erabilitako teknika nagusietariko bat. Besteak beste, William Faulkner-en *The Sound and the Fury* (1929) [*Hotsa eta ardaila*, M. Garikanok itzulia, 1992] eleberrian eta G. García Márquezen *Crónica de una muerte anunciada* (1981) eleberrian antzeman daiteke teknika hori. Euskal eleberrigintzan aipagarriak dira Anjel Lertxundiren *Hamaseigarrenean, aidanez* (1983) eta B. Atxagaren *Bi anai* (1985), besteak beste.

Literatura Terminoen Hiztegia, Euskaltzaindia, 2008.

1.2. Pertsonaien nortasunak. Nobelaren pertsonaien nortasunak eraikitzerakoan, hainbat bide erabiltzen dira.:

- Eguraldia pertsonaien barne-gogoia irudikatzeko eta gertaeren iragarpena egiteko erabiltzen da nobelan zehar. Pasarte hauetan, nolako barne-gogoia irudikatzen du eguraldiak? Nolako iragarpena dakar eguraldiak?
- Pertsonaia batzuek ematen digute beste pertsonaia batzuen nortasunaren eta ezaugarrien berri. Martzelinaren kontakizunak, zer pertsonaiaren nortasunaren berri ematen digu? Mariaren kontakizunak, zer pertsonaiaren nortasunaren berri ematen digu?
- Nolakoa irudikatzen duzu Martzelinaren eta Mariaren arteko harremana?

1.3. Leihoaren hegiak. Bi pertsonaiak, Martzelina zein Maria, leihotik begira eta leihoarekiko harremanean irudikatzen dira. Garai bateko literatur lanetan eta lan artistikoetan, ugari dira leihotik begira irudikaturiko emakume pertsonaiak, gizonak baino askoz ere ugariago. Motibo artistiko ere

bilakatu izan da kokapen hori.

- Leihoan kokatzeak, etxeko espazioarekiko zer harreman irudikatzen du? Kalearekiko zer harreman irudikatzen du?
- Bilatu leihoan irudikaturiko lan literario edo artistikoak.

Irakasleentzako baliabideak

Asko dira emakumeak leihoari begira, leihotik begira edota leihoan jarrita irudikatu dituzten margolariak. Salvador Dalík, Jan Vermeerrek eta Fernando Murillok badute margolanen bat, baina agian ezagunena eta euskal literaturako zenbait obretan deskribatu direnak [Edward Hopper](#)renak izan dira.

2. Pasartea. Domingoren apustuzaletasuna

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza literarioa (1): pertsonaien emozioen eta nortasunen gorpuztea.
- Ezautzia soziokulturala (2): aizartearen errepresentazioa eta aenero-ikusneia.

ARRATSALDEKO BOSTETARAKO jendetza zegoen bildurik herriko plazan. Bete-beteen begiratzen zion Martzelinaren senarrak bere aurrean zuen porlanezko zakukadari. Txakurrak eta neska-mutilak jakin-minez eta ikusnahiz zebiltzan haren inguruan, adineko gizasemeak, nor besoak gurutzatuta, nor zigarroa ahoan, apustuak bete, Domingok ez zuela sargoria lagun izango eta zakukadaren erosotasunaz ari ziren; emakumeek, berriz, plaza inguratzen zuten etxetako balkoietan kolore giroa eskaintzen zioten gertaerari.

Ez ziren artean bostak izango haztaga bat plaza erdira ekarri eta porlanezko zakukada bertan zeremonia neurtu batez pisatu zutenean. Kornelio eta Domingo haztagaren neurgailuari begira egon ziren une labur batez. Behin neurgailua orekatu zenean, Domingok eskuak gerritara eraman, flexio batzuk egin, eta gero Korneliori:

-Berrogeita hamar kilo. Konforme egongo haiz, noski?

Korneliok zakukada jaso zuen bizkarrera kolpe bizkor eta azkar batez.

-Gehiago fidatzen nauk neure besoez munduko haztaga guztiez baino –esan eta lurtean utzi zuen berriz zakukada-. Bai, conforme! Kilo erdi batean gorabeheraz ez gaituk haserretuko.

Korneliok bere erlojura begiratu eta:

-Prest al hago?

Domingo eta Kornelio eskumuturrean zeramatzaten erlojuak puntuan jartzen hasi ziren. Orduantxe entzun berriak ziren elizako kanpian bostak.

-Orain! Bostak eta bost! Eta hirean? –galdetu zuen Domingok.

-Baita ere. Bostak eta bost.

Izan zen kronometro bat eskaini zienik, baina ez zioten jaramonik egin.

-Nahi duanean!

Korneliok apustuari hasiera ematen zioten hitzok bota zituenean, plazako jendea guztiz isildu zen eta balkoietako koloreak zintzilik bezala geratu ziren, sargoriaren aire ezin geldiangoan.

Martzelinaren senarra zakukadari begira egon zen une labur batez. Aitaren egin, gerrialdea makurtu eta bizkar gainera jaso zuen porlan zakukada.

-Bale! –bota zuen Korneliok, erlojuari begiratzuz.

Ia herri guztia joan zitzaion atzetik Domingori, txakurrak eta neska-mutilak gertu, gizonezkoak atzetik eta balkoietatik jaitsitako koloreak azkenik. Jesusen Kalbarioranzko ibilaldiko kromoak gogoratzen omen zizkion apustuak handik urte batzuetara ere Jexux sakristauari.

Zenbat denbora ote zeraman galdetzeko bakarrik irekitzen ziren jendearen ahoak. Haurrek eta txakurrek ere ez zuten txintik ateratzen, inork erabaki ez zuen liturgia isil harri errespetu gorra eskainiz.

Ez ziren hamasei minutu pasako Martzelinaren senarrari begiak zurbildu zitzaizkionerako, hamasei eta segundo gutxi gehiago kopetan izerdi tanta lodiak ikusi zitzaizkionerako, hamasei minutu eta erdi inguru hasierako korrikada bizi eta segurua pauso ezin, baldarretara makurtu zenerako, hamazazpigarren minuturako bizkarretik behera irristatzen hasi zitzaion zakukada, segundo gutxi barru esku librea gerrira eraman zuen eta oreka galtzeko arriskuan gertatu zen zakukadari eutsi ezinik ibili zenean, berrogei segundo ez ziren pasako kopetatik izerdi tanta lodiak desagertu zitzaizkionerako, gero eta zurbilago zuen aurpegia, zakukada erori zitzaion lurrera hemezortzigarren minutu eskasean eta zakukadaren ondoren jo zuen lurra Martzelinaren senarrak ere.

Hirurehun metro inguru falta zitzaion kanposantura iristeko eta harantz begira gelditu ziren Domingoren begiak, eta herritarrek premonizio bezala hartu zuten Martzelinaren senarraren begirada hura.

Une hartan bertan hil zela pentsatu zuenik ere gertatu zen eta horrelakorik iritsi zitzaion Martzelinari, baina denbora gutxi barru, senarra etxera eraman ziotenean, ez du ezer, esan zioten, berehala pasako zaio.

Arratsalde hartan sagardo botila asko ireki zuen Korneliok adiskideentzat. Baina, bitartean, Martzelinak etsipenari kandela gorri asko biztu beharko zizkiola erabaki zuen senarrari okozpean maindirea tolestatzen zion bitarte mingarrian.

Anjel Lertxundi, Hamaseigarrenean aidanez, Erein, 1983, 71-73. Orrialdeak.

2.1. Zakukadaren apustua. Pasarte hori irakurri, eta erantzun galdera hauei:

- Pasarte honetan, zer apustu irudikatzen da? Deskribatu zertan den lehia, non, noiz eta nola gertatzen den.
- Nork irabazten du apustua?
- Apustuaren aurrean, zer jarrera eta emozio dute herritarrek?
- Apustuaren aurrean, zer jarrera eta emozio du Martzelinak?

2.2. Apustuaren ibilbidea. Pasarte hori irakurri, eta erantzun galdera hauei:

- Apustuaren ibilbidea honela dakar gogora pertsonaia batek: “Jesusen Kalbarioranzko ibilaldiko kromoak gogoritzen omen zizkion apustuak handik urte batzuetara ere Jexux sakristauari” (72. orrialdea). Zer sinbolizatzen du Kalbarioak? Zergatik lotzen du apustuaren ibilbidea Kalbarioarekin?
- Aurreko irudiak adierazi bezala, katolizismoan erroturiko gizartea irudikatzen da nobelan. Pasarte honetan, zer beste keinutan antzematen da kristautasunaren oihartzuna?
- Gizarte tradizional eta katolikoa irudikatzen da nobelan, nekazal giroan. Gizarte tradizionaletan emakume zein gizonen rolak oso zehazturik egon ohi dira, eta besteak beste, espazio pribatuaren zein espazio publikoaren arteko bereizketa argia egiten da: emakumea espazio pribatuan kokatzen da, eta gizona espazio publikoan. Pasarte honetan, non antzematen dira genero-bereizkeria horiek?

3. Pasarte. Iragarritako heriotza

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- *Ezagutza literarioa (1):* narrazio-teknikez jabetzea (perspektibismoa).
- *Ezagutza soziokulturala (2):* gizartearen errepresentazioa eta genero-ikuspegia

DOMINGO, APUSTUZALE BOKAZIONALA, apirileko igande euritsu hartako arratsaldean ekarri zioten Martzelinari karretila batean, ateko txirrina entzun zuenerako jakin zuen Martzelinak egun guztian irentsia zuen berria, egun guztiko ezinegonak baretu zitzaizkion atea jo zutenean eta pauso seguruez joan zen atea irekitzera, soiltasunez eta ezbeharrak aurretik ongi ezagutu duenaren segurtasun erabakiaz, kaleko atea ireki zuen eta bi gizonen artean sartu zioten Domingoren gorpua bina oso gutxitan izan zen gelaraino, toalla handi bat zabaldu zuen Martzelinak ohe gainean eta han etzan zuten gizona, ezustean gertatu da esan zioten, ongi oroitzen da orain ere Martzelina baina honek keinu dardarati batez gelatik irteteko esan zien bi gizonei erantzun bakartzat, atea bere gibelean itxi, ohearen aurrean belaunikatu eta orduan bakarrik isuri zituen egun guztian gorderik zituen malkoak, malko lodi, mantsoak, leihotik sartzen zen argi eskasa islatzen zuten malkoak.

Hamar minutu egin zituen postura berdinean. Gero, jaiki eta sukaldera joan zen esponja baten bila. Ezustean gertatu da esandako berak hartu zuen berriro hitza Martzelina sukalderatu zenean:

-Nahi al duzu zerbeitetan laguntzerik?

-Ez, ez, eskerrik asko.

Esponja hartu, gelaratu berriro eta senarraren odolak eta odolbilduak garbitu zituen mugimendu bizkor eta maitekorrez.

ATEA IREKI ZUENEAN, ustekabean gertatu da esan nion baina ez dut ezer entzun zuenik uste, ezta keinu bat ere aurpegian, marmola, horixe, marmola zirudien beti gorrixka ezagutu dudak haren aurpegiak, gorpua eraman genion gelaraino eta han etzan genuen Domingo, Martzelinak ohe gainean zabaldutako toalla zuri baten gainean, berehala sortu zitzaizkion makula gorri, informeak toallari eta gelatik irteteko adierazi zigun keinu bigun baina seguru batez, gelako atea bere atzean itxi eta han geratu zen Martzelina bakarrik, ordu laurdenen bat baina a zer ordu laurden luzea! Korneliok kanpoko atea seinatu zidan alde egin nahiaren keinuz baina ezetz erantzun nion, ez zitzaidan egokia iruditzen piura hartako gizon hil batekin Martzelina bakarrik uztea, Korneliok zurbil zuen aurpegia, espantu baten aurrean zer gertatu zaion ikusten, sentitzen, ukitzen ari denaren aurpegia, ihes egin nahi zuen handik Korneliok baina nik ezetz erantzun nion, ulertzen nion egonezina, baita desesperoa ere, baina halakotan Martzelinaren bezalako egoeran dagoen emakume bati zure laguntza eskaini behar ez badiozu, zer? Laguntza guztia zure presentzia eta arnasa eutsia besterik ez bada ere, gelatik irten eta sukaldera esponja baten bila joan zenean emakume haren urtetako bakardadea pasa zitzaidan errainu bat bezala burutik eta koldar bat nintzela, koldarrak ginela guztiok pentsatu nuen, eta gaua han pasatzea erabaki nuen Martzelinak hitz erdi bat zuzenduko ez bazidan ere, eta erabakiarekin batera hil kanpaiak entzun nituen elizako dorrean lehertzen, gero eta haize gogorragoaren orroekin eta leiho danbatekoekin nahasten ziren hil kanpaiak.

Anjel Lertxundi, *Hamaseigarrenean aidanez*, Erein, 1983, 121-123. Orrialdeak.

3.1. Domingoren etxeratzea. nobelak, atal bakoitzaren hasieran, arrainen inguruan aritzen den pasarte sinboliko bana du. Irakurri lehen bi ataletako pasarte hauek, eta erantzun galderari: Bi pasarte horiek irakurri, eta erantzun galdera hauei:

- Bi pasarte hauetan, egoera bera kontatzen da. Baina, nor da narrazioa lehen pasartearen? Nor da narrazioa bigarren pasartearen?
- Zer gertaera edo ezaugarri errepikatzen dira bi pasarteetan?
- Nola deritza narrazio-teknika honi?

3.2. Hilotzak eta zauriak. Bi pasarte horiek irakurri, eta erantzun galdera hauei:

- Domingoren heriotzaren berri izatean, zer sentitzen du Martzelinak? Nola adierazten du emozio hori bakarrik dagoenean? Nola adierazten du emozio hori jende aurrean dagoenean?
- Domingoren hilotza Martzelinarengana eramatean, zer sentitzen du Julianek? Zer emozio sorrarazten dizkio Martzelinak?
- Nor arduratzen da hilotzaren zaintzaz? Zergatik?

3.3. Neorrealismoaren eragina. Cesare Pavese idazle italiarraren aipuekin abiatzen da nobela. Pavese dugu neorrealismo izeneko mugimendu literarioaren idazle entzutetsuetariko bat. Italiako neorrealismoak II. Mundu Gerraren ondoko egoera politikoa eta gatazka sozialak irudikatu zituen, eta hortaz, korronte literario honek 1950eko hamarkadako mugimendu sozial, politiko eta kulturekin harremana izan zuen. Hamaseigarrenean aidanez (1983) nobelan mugimendu literario horren eragina antzematen da, zehaztu zertan:

Neorrealismoaren ezaugarriak	Hamaseigarrenean aidanez (1983) nobelaren ezaugarriak
Gai sozialak jorratzen ditu, kontzientziazio soziala pizte aldera.	
Garaiko pertsonaia eta gertaeretan oinarritzen ziren literatura sortzerakoan.	
Miseriaren gaia askotan jorratu zen, herri xehearen gatazka lehen lerrora ekarrita.	
Hizkera ulergarria eta hurbila jorratu zuten, irakurleengana heltzeko asmoz.	
Gizartean eragitea helburu zutenez, batik bat nobela garatu zuten (irakurle gehiagorengana heltzen delako).	

Irakurketatik diziplinartekotasunera

1. Jarduera. Literaturatik kultura bisualera

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Genero artistikoak konparatzeko gaitasuna.
- Narrazio-moldeak bereizteko gaitasuna.

1985. urtean, Hamaseigarrenean, aidanez (1983) nobela zinemara bihurtu zuen Anjel Lertxundik berak, eta komikira bihurtu zuen Antton Olariagak. Irakurri eleberriko pasarte hau, zinera eta komikira nola eraman den konparatu ahal izateko.

Garbi dago beldur ziola senarrak nire lehen ezezagunari, ez zela nire hitzez eta iraganaz fidatzen, ez zela sekula bion arteko zubi eroria konponduko. Ez baitzen zubirik egon inoiz gu bion artean.

Horregatik, senarraren jakin-mina ez zen nire ahaidetara luzatzen, nire gorabeheretara baizik. Gorabehera barnekoienetara, haren gizatasuna gainbehera jarriko luketen gertakizunetara.

-Noiz ezagutu zenuen lehenengoa? –galdetu zidan behin senarrak eta nik hortzak estutu nituen.

-Lehenengoa? Zer lehenengo?

-Denbora irabazten ari zara? –senarrak estutu zituen oraingoan hortzak eta benetan ari zenez zuzen bidetik jotzea erabaki nuen.

-Lehenengo gizonaz ari baldin bazara, zu zaitut lehendabizikoa. Ganbaran hartu ninduzun hartan jakin behar izan zenuen egia diodala.

-Eta zergatik utzi zenidan belar gainean etzaten lehenengorik ez bazegoen?

-Zergatik? –aspertzen ari nintzen elkar hizketaz.

-Bai, bai, zergatik galdetu dizut. Errazegi gertatu zen guztia. Ez nuen indarririk egin behar izan, ezta dirurik erabili ere.

Nola esan senarrari garai hartan nekatuta nengoela mundu guztiari uko egiten, nola adierazi uko egiteak atek ixten bazizkidan, hanka zabaltze soilak ateran bat irekiko zidala, Jainkoa errukitu dadila nitaz, eta ongi pentsatu ondoren erabaki nuela zeinen atea ireki behar nuen? Nire hitz guztiak alferrikakoak zirenez, bota banuen bota nuen senarrak espero zuen aitzakia:

-Zer uste duzu naizela?

-Mina emango lizuke entzuteak.

Anjel Lertxundi, *Hamaseigarrenean aidanez*, Erein, 1983, 15-17. orrialdeak.

1.1. Nobelatik zinemara. Konpara ezazu pasarte literario hori [Hamaseigarrenean, aidanez](#) (1985) filmaren zati horrekin (13:14-14:27 bitarteko pasarte).

- Nobelako pasartean, nor da narratzailea?
- Nobelako pasartean, pertsonaien gorputz ezaugarriak adierazten al da?
- Filmean, nor da narratzailea?
- Filmaren sekuentzia horretan, nola gorputzu dira pertsonaiak? Bat al datoz pertsonaia horiek zuk irudikaturiko pertsonaiekin?

– Filmaren sekuentzia horretan, nolako giroa irudikatu da? Zer baliabide erabili dira giro hori irudikatzeko?

1.2. Nobelatik komikira. Konpara ezazu pasarte literario hau Hamaseigarrenean, aidanez (1985) komikiaren orrialde horiekin.

– Komikiaren ataltxo horretan, nola marraztu dira pertsonaiak? Bat al datoz pertsonaia horiek zuk irudikaturiko pertsonaiekin?

– Komikiak zer kolore erabili du istorioa irudikatzeko? Kolore horren erabilerak, zer adierazi nahi du?

– Komikiaren azken binetan, KLIK onomatopeia erabili da. Zer adierazi nahi du onomatopeia horrek? Zer sinbolizatu nahi du?

2. Jarduera. Komikitik narraziora

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Sormenerako eta irudimenerako grina piztea.
- Narrazioaren osagaiak identifikatzea eta narrazio-egitura berriak sortzea.
- Narrazio-teknikez jabetzea.

Hamaseigarrenean aidanez komikiko pasartetik abiatuta, narrazio literarioa sortuko dugu. Horretarako, perspektibismoaren teknika erabiliko dugu:

- Lehenik, Martzelinaren ikuspegitik (lehen pertsona) kontatu komiki-atala: *Zerk kezkatzen zaitu? Zergatik eman diozu negarrari? Nola egingo diozu aurre egoerari?*

- Bigarrenik, pasarte bera Domingoren rolean sartu eta bera bazina bezala idatzi (lehen pertsona): *Zer gertatu da? Nola sentitu zara? Zeintzuk dira zure pentsamenduak?*



ZERGATIK EMAN ZENIZKIDAN HAIN-BESTE ERRAZTASUN AURRETIK BESTE GIZONIK SUERTATU EZ BALDIN BAZITZAZUN ?



BAI, BAI... ERRAZEGI GERTATU ZEN GUZTI HURA. EZ NUEN AHALEGIN HAUNDIRIK EGIN, EZ NUEN ORDAINDU BEHARRIK ERE IZAN...





3. Literaturatik errealitatera

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Sormenerako eta irudimenerako grina piztea.
- Sormen-teknikez jabetzea (collage).
- Poemaren osagaiak identifikatzea eta poema-egitura berriak sortzea.

3.1. Anjel Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez* (1983) eleberrian, Martzelina herri batera heltzen den pertsonaia da, eta hari buruz ezer ez jakiteak herritarrengan mesfidantza sortzen du. Ez dio inork haren iraganaz galdetzen, eta sexu bila doalako irudia zabaltzen da herrian. Haren iragana ez ezagutzeak misterioaren eta zurrumurruen atea irekitzeko aukera ematen du. Alabaina, Martzelina baserritarra zen, eta bere etxea erretzean lehenaldia ere bertan utzita alde egin behar izan zuen, umezurtz. Hortik aurrera, gainerakoek egin nahi ez zituzten lanetan aritzeko prest agertzen da, aterpe baten truke. 30 urte beranduago herrira kazetari-idazle bat agertzen da, Martzelinaren senarrarekin gertatutakoa ikertzeko asmoz, baina herritarrek harekin duten jarrera ezberdina da. Irakurri bi pertsonaia horiek herrira iristean izandako inpresioak:

Herrira iritsi nintzenean, apirileko egun euritsu hura baino hogeita hamar urte lehenago edo, jendea ez zen eskekoaren hurrengo agertu izan nintzaian emakume gazte hartaz, ez nire egurrezko maleta erdi beteaz errukitu eta lana atez ate eskatu nuen arren, inor gutxik eskaini zidan jateko zerbaiteko aterpean lo egiteko aukera. Eta ganbarak geratu ziren gehienetan nire gauetako aterpe.

-Gida zaitetz! -esaten omen zuten herrian gero Mariarengandik jaso izan dudanez-. Nork daki nondik datorren?

Iñaxik ere bota omen zuen botatzekoa:

-Bularrak pasiatzeko modu hori ez da batere parte onekoa.

Jesus bedeinkatua, nola sufritzen dudan orain ere gauza guzti hauek oroitze soilaz.

Emakume eta gizonezko, hitzetan bat egiten bazuten ere, begiradetan ez ziren bat eta berdinak, ongi asko antzematen nien nik hori; agian beraiek ere ulertu ezin zuten egonezin ulergaitz eta inozoa antzematen nien emakumeei, eta gizonezkoiei, aldiz, disimulatu ezin zuten grina eutsi ezina. Eta badakit orain horregatik hasi zirela irekitzen ganbaretakoa ateak nire gorputz gazte eta lardenarentzat.

Anjel Lertxundi, *Hamaseigarrenean aidanez*, Erein, 1983, 31-32. orrialdeak

GORAGO ADIERAZI DUDAN BEZALA, erabat liluratu ninduen bezperan arratsaldeko argitasunaz berotutako herrirako sarreran zegoen ordeka guztiz berdek eta harantz jo nuen Martzelinaren etxetik irten nintzenean.

Autotik baino ederragoa iruditu zitzaidan ordeka oinezkarakoan. Goiz hartan jotzen zuen hego haize xumeak berdetasun desberdinetako boladak sortzen zituen belar guztia hona orain, hara gero norabide berdinean okertuz eta zurixkatuz.

Urrutian entzuten ziren errementari baten edo danbatekoek eskaintzen zioten giza itxura bakarra inguruneari. Hego haizearen boladetan nahasten ziren hotsek, beraz.

Denbora luzez ibili nintzen berdetasun zabal ziren eta lau hura zeharkatzen zuten bide zidorrean. Bidetik antzeman ere egiten ez zen erreka batera iritsi nintzen. Ertzeko belarretan eseri eta harri koskor bat bota nuen ur geldi, nagira. Zipriztin gezal baina alaiari handitzen, handitzen, handitzen joan zitzaion harri koskorrek sortutako zirkulu etengabea

Anjel Lertxundi, *Hamaseigarrenean aidanez*, Erein, 1983, 61. orrialdea.

3.2. Pasarte bakoitzean pertsonaia bakoitzak herrira iristen deneko inpresioak azaleratzen ditu:

- Nori dagokio pasarte bakoitza?
- Nolakoak dira herrira iritsi berrikan izaten dituzten sentimenduak?
- Zerk uste duzu ezberdintzen dituela bi pertsonaiak horren harrera ezberdina izateko?

Askotan esan izan da herri batean bizitzeak itolarria dakarrela. Are gehiago, *herri txiki, infernu handi* esaerak ere hori islatzen du. Esapide hori baliatuz, Euskal Telebistan *Herri txiki, infernu handi* telebista saioa sortu zuten, herrietara joan eta bertako jendeari elkarrizketak eginez, aurreiritzi batzuk hautsi eta herrietan bizitzeak zer dakarren erakutsiaz. Ikusi [Zumaian egindako grabazioa](#), eta erantzun ondorengo galderari talde txikitan:

- Nola hartzen dituzte Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi aurkezleak? Deskriba ezazu herritarrek haiekin duten jarrera.
- Zergatik uste duzu dutela halako jarrera haiekin?
- Konpara itzazu taula honetan *Hamaseigarrenean aidanezen* pertsonaia “kanpotarrei” egindako harrera eta saio honetan Zuhaitz Gurrutxagari eta Mikel Pagadiri egindakoa.

	Martzelina	Kazetari-idazlea	Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi
Herrira iristen diren garaia			
Herrira joatearen helburua			
Generoa: gizona ala emakumea?			
Herrian pasatzen duten denbora			
Herritarrek egiten dieten harrera			
Herritarrek haiei buruz duten ustea			



Lan hau [Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia](#) baten mende dago.

Honakoak egin ditzakezu:

- Partekatu — partekatu, kopia eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan.
- Moldatu — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu edozein xedetarako, baita merkataritza-xedetarako ere.

Honako baldintzen arabera:

- Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.
- PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.